

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3666

AGINDUA, 2026ko uztailaren 28koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita goi-kargudunaren idazkariaren lanpostu bat (520010/85) izendapen askeko sistema bidez hornitzeko deialdi publikoa.

Goi-kargudunaren idazkariaren lanpostu bat hutsik dagoenez –520010 kodea, 85 dotazioa– Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzan, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 94.2 eta 102.2 artikuluetan xedatutakoari jarraituz eta Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren aldeko txostena baliatuz, eranskinean azaltzen den lanpostua izendapen askeko sistema erabiliz hornitzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du sail honek. Hona hemen deialdiaren

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionarioek eta EAEko Administrazio orokorrarekin lotuta dauden zuzenbide pribatuko ente publikoetako karrerako funtzionarioek, lanpostu-zerrendan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte (eranskinean zehaztuta daude).

Aipatutako langileek edozein administrazio-egoeratan egonda hartu dezakete parte deialdian, hauetakoren batean daudenean izan ezik:

– Eginkizun-gabetze irmoa ezarrita duten funtzionarioek ezin izango dute parte hartu, egoera horrek dirauen bitartean.

– Norberaren kontuotarako edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzian dauden langileek ezin izango dute parte hartu, ez badute bete eszedentzian egon beharreko gutxieneko denbora (2 urte).

Bigarrena.– Eskabideak.

Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

EAEko Administrazio orokorrean eta haren organismo publikoetan jardunean dauden karrerako funtzionarioek EIZU enpleguaren atariaren bidez egin ditzakete eskabideak. Jakina bidez eta Internet bidez sar daiteke atari horretara, helbide honetatik: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/funtzio-publikoa/hasiera/>

Gainerako izangaiek erregistro elektronikoaren bidez bidaliko dituzte eskabideak, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara.

Hirugarrena.– Betekizunak eta merezimenduak.

Agindu honen eranskinean ezartzen dira lanpostu-zerrendan goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua (520010/85) betetzeko eskatzen diren baldintzak.

Parte hartzeko eskabideari curriculum vitae-a erantsiko zaio, eta, hor, datu pertsonalak eta zein talde, azpitalde edo kidegotakoa den zehazteaz gain, beste hauek ere jasoko dira:

- a) Tituluak.
- b) Administrazio publikoan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan betetako lanpostuak, lehia-tzen den lanpostuaren antzeko funtzioak dituztenak.
- c) Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.
- d) Jasotako edo emandako prestakuntza-ikastaroak.
- e) Hizkuntza-gaitasunak.
- f) Eskatutako lanpostuari esleitutako funtzio eta zereginekin lotuta, izangaiek jakinaraztea egoki irizten dioten bestelako merezimendu eta konpetentzia guztiak.

Eskabidearekin batera, deialdian eskatzen diren betekizunen eta alegatutako merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte izangaiek, baldin eta EAEko Administrazio orokorraren Langileen Erregistroan ez badaude.

Izangaia deitutako lanpostuaren funtzioetara ongi egokitzen dela bermatzeko, deialdia egin duen organoari aukera ematen zaio izangaia alegatu dituen merezimenduak egiaztatzeko egoki jotzen dituen bitartekoak erabil ditzan; elkarriketa pertsonala edo proba egin dezake horretarako, edo Giza Baliabideen Zerbitzuko organo teknikoaren txostenak eskatu.

Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den datan bete behar dira eskatutako betekizunak, eta esleitutako lanpostuez jabetu arte eutsi behar zaie. Parte hartzeko baldintzak betetzen jarraitzen ez duten parte-hartzaileak ezin izango dira jabetu esleitutako lanpostuaz.

Laugarrena.— Ebazpena.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren agindu bidez ebatziko da deialdi hau, gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Agindu hori EHAAn argitaratu beharko da.

Lanpostua lortzen duen pertsonak esleipen-aginduan ezarritako datan jabetu beharko du lanpostuaz, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du.

Ebazpen hori arrazoitzeko, kontuan hartuko da izangaia deialdian eskatzen diren baldintzak eta zehaztapenak bete dituela, izendapena egiteko eskumena dagoela eta lanpostuari buruz monografian ezarritako eginkizunak eta zereginak betetzeko egokia dela. Horretarako, gainerako izangaiekin (baldin badaude) alderatuko dira merezimenduak (eta, hala badagokio, elkarriketa-aren edo probaren emaitza).

Deialdia hutsik geratu dela deklaratu daiteke, baldin eta izangaietako batek ere ez baditu betetzen lanpostuaren baldintzak edo izangaietako bat ere ezin bada egokitzen jo, deitutako lanpostua betetzeko behar beste merezimendu eta konpetentzia ez dituelako.

Bosgarrena.— Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 28a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA.

ERANSKINA

Deitutako lanpostua: goi-kargudunaren idazkaria.

Kodea: 520010.

Dotazioa: 85.

Kidegoa eta eskala: EAEko Administrazio Orokorreko Administralien Eskala (EGC101) eta Administrali Laguntzaileen Eskala (EGC201).

Lanpostu-mailako osagarria: 18.

Berariazko osagarria: VI-A.

Kokapena: Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritza.

Herria: Vitoria-Gasteiz.

Hizkuntza-eskakizuna: 2.

Derrigortasun-data: 2003-03-31.